

Garazi Mujika Lasa

B maila • Aipamena

Maiz galdetu izan diot neure buruari zer dudan gustuko. Oraindik ez dut sekula aurkitu galdera honen erantzunik. Agian gaztea naizelako edota oraindik gauza asko gertatuko zaizkidalako izango da, baina nik uste, urteak aurrera doazen heinean geroz eta garbiago dudala nor naizen. Duela ia hamasei urte dira jaio nintzenetik, Beasainen bertan. Garazi dut izena eta lagunekin egoteaz gain baditut nire lasaitasunean matentzen laguntzen didaten zaletasun gehiago ere. Idazteak asko laguntzen dit ditudan kezkak albo batean utziz nire barrua ulertzen; bertsoz edo poesia bidez idaztea da gehien gustoko dudan modua. Beste ezer gehiagorik esateko ez dudanez, gozatu ezazue!



Doinua: Aita izena kanta beharrak

FALTA ZAIZKIGUN HAIEK

Askotan ez da gaia aipatzen,
ez da eskolan emana
Nola bidera sentipen hauxe?
bizitzan zehar jasana,
Bakoitzak bakardadea pisuz
bizkarrean daramana
Batzuek hitzez, besteek bertsoz,
edo prosaz idazlana
Garrantzitsuena denez gero
kentzea gaineko zama (*bis*)

Bada hor nonbait bizimodu bat
senti gaitzakena preso
urrun izanik anai-arreba,
lagunak eta guraso,
aspaldi joan zaizkigun haiek
ezin etxeetan jaso,
eta eurekin egoterako
pasa mendi zein itsaso,
geure artean ez ditugunez
ezin dugu egin paso (*bis*)

BERTSOAK

Beste batzuek aldiz ez dute
okasiorik aurrean,
jaio direnetik ez baitute
guraso dena parean,
aita-amek haurra etortzean
utziz kutxa ilunean;
hauek oster, haztean dute
karga motxila gainean,
inguruan inor izan gabe
kozkortu behar kalean *(bis)*

Hainbat etxetan kontu ugari
jasan behar egunero,
helduen arteko eztabaidek
giroa txartuz goizero,
baina erabakia hartzean
biak banandu ezker, o
aurretik daukaten lotunea
bihurtzen bada soltero,
arazoa handitu daiteke
umeak izan ta gero *(bis)*

Adiskideekin kontu bera,
berdina da egoera,
betikoek alde egin eta
lagun berriei harrera,
ingurukoak zaintzeko beti
premiatzko saiakera,
ondokoei goxo hitzeginez
edo zainduz portaera,
eurek alde egitean, hortxe
izaten baita galera! *(bis)*

COVIDa dugu orain arazo
nahiz ez egon ametsetan,
ez kutsatzearen urrutira
bidaliak hainbestetan,
bizitzeko oztopoei aurre
egin behar batzuetan,
zenbat eta zenbat kasu dauden
bihotzeko min hauetan,
agurtu ezin genituenen
laztanik goxoenetan *(bis)*